

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

Arabako Batzar Nagusietako Mahaiaren Erabakia, itzulpen-, zuzenketa- eta interpretazio-teknikarientzako hautaketa-prozesuan 2023ko enplegu-eskaintza publikoa onesteari eta lanpostu bat gehitzeari buruzkoa

Arabako Batzar Nagusietako Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 31n egindako bilkuran, honako hau erabaki du:

Arabako Batzar Nagusietako Mahaiaren Erabakia, itzulpen-, zuzenketa- eta interpretazio-teknikarientzako hautaketa-prozesuan 2023ko enplegu-eskaintza publikoa onesteari eta lanpostu bat gehitzeari buruzkoa.

Lehenengoa. Onestea Arabako Batzar Nagusien 2023ko enplegu-eskaintza hau: itzulpen-, zuzenketa- eta interpretazio-teknikari lanpostu bat, 4. hizkuntza-eskakizuna (TG) duena, eta derrigortasun-data, 2022ko abenduaren 21ekoa, eranskinean jasotzen den bezala.

Bigarrena. Lanpostu bat gehitzea itzulpen-, zuzenketa- eta interpretazio-teknikari lanpostu bat (aurrerantzean, bi) betetzeko deialdian (Mahaiaren 2021eko ekainaren 15eko Erabakiaren bidez deitu zen, eta 2021eko ekainaren 18ko ALHAOn –67. zk.– argitaratu zen deialdia) bete beharreko plazen kopuruari, honela banatuta:

Lanpostu bat sarbide askeko txanda orokorrean, 4. hizkuntza-eskakizuna (TG) duena.

Hirugarrena. Argitaratzea erabaki hau eta haren eranskina ALHAOn eta Arabako Batzar Nagusien Aldizkari Ofizialean.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko urtarrilaren 31

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA

ERANSKINA

2023ko enplegu publikoaren eskaintza.

Batzar Nagusietako Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 31n egindako bileran, indarrean den Langileen Estatutuan xedatutakoari jarraituz, erabaki du enplegu-eskaintza onestea, eta agindu du argitaratzea Arabako Batzar Nagusien Aldizkari Ofizialean eta ALHAOn.

Goi-mailako kidego teknikoa.

Itzulpen-, zuzenketa- eta interpretazio-teknikari lanpostu bat.

Unibertsitateko goi-titulazioa.

4. hizkuntza-eskakizuna (TG), nahitaezkoa.